



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2016KO IRAILAREN 29AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Hanot Karrera Amondarain
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

*Ibarran, **bi mila eta hamaseiko irailaren hogeita bederatzian** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Lehendakariak egintza hasi aurretik, eguneko gai-zerrendan aurrikusten ez diren gai hauek sartzea proposatzen du. Honako gai hauek proposatzen ditu:

- *Udal Plantilla Organikoaren aldaketa*
- *Udal lanpostuen zerrenda aldatzea*
- *Hainbat Lanpostuen funtzio katalogoa onartzea*
- *Ibarburubide eta Ibarburuondo baserrien artean dagoen Izaskungo bidea zabaltzeko hitzarmena*

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: 2016ko irailaren 29ko Udalbatzaren eguneko gai-zerrendan sartzea honako gai hauen azterketa

- *Udal Plantilla Organikoaren aldaketa*



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- *Udal lanpostuen zerrenda aldatzea*
- *Hainbat Lanpostuen funtzio katalogoa onartzea*
- *Ibarburubide eta Ibarburuondo baserrien artean dagoen Izaskungo bidea zabaltzeko hitzarmena*

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2016ko uztailaren 21ean egindako ohiko Udalbatza bilkuraren aktaren onarpena.
- 2.- 243/2016tik 332/2016ra alkate dekretuak jakinaraztea.
- 3.- Kontu-hartzailearen txostena: aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua ez betezea 3/2016 kreditu aldaketaren espedientean, 2016ko Aurrekontu Orokorreko kreditu gehigarriak modalitatea.
- 4.- 4/2016 Kreditu Aldaketen espedientea, kreditu gehigarrien modalitatea.
- 5.- Kontu-hartzailearen txostena: aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua ez betetzea 4/2016 kreditu aldaketaren espedientea, 2016ko Aurrekontu Orokorreko kreditu gehigarriak modalitatea.
- 6.- Udal Plantilla Organikoaren aldaketa.
- 7.- Udal lanpostu zerrenda aldatzea.
- 8.- Hainbat lanpostuen funtzioa katalogoa onartzea.
- 9.- Ibarburubide eta Ibarburuondo baserrien artean dagoen Izaskungo bidea zabaltzeko hitzarmena
- 10.- Galde-erreguak

LEHENENGOA:

2016KO UZTAILAREN 21EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko uztailaren 21eko ohiko bilkurako akta.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko uztailaren 21eko ohiko bilkurako akta.

BIGARRENA:

243/2016TIK 332/2016RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2016ko uztailaren 21etik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 243/2016tik 332/2016ra.

289/2016 dekretua baliogabetua gelditzen da ondorioz 289/2016 hutsik gelditzen da.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

HIRUGARRENA:

KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA: AURREKONTU EGONKORTASUNA ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA EZ BETETZEA 3/2016 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAN, 2016KO AURREKONTU OROKORREK KREDITU GEHIGARRIAK MODALITATEA.

Kontuhartzaileak honako txostena aurkezten dio Udalbatzari:

Kontuhartzailletza honek, 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5 art.an xedaturikoa betez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza departamentuaren Instrukzioaren 1.go eta 3. Arauari (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) jarraiki, txosten hau egiten du Udalbatza jakinaren gainean gelditzeko.

1.- AURREKARIAK

1.1 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

garatzen duenak, 5 art-an neurri zehatz batzuk ezartzen ditu Gipuzkoako toki entitateetako aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna bermatzeko .

5. artikulua.– Zuzentze neurriak.

1.– Ez bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, urtebetean helburu horiek edo gastu araua bete ahal izateko.

2.– Dena den, zor helburua betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokituko zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020 urteko denbora muga.

3.– Bestetik, aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordean, entitateko Udaltzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzaitzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

1.2 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2015eko azaroaren 17an, onarturiko Instrukzioaren 1.go . Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ aurrekontu egonkortasunari” buruz hauxe dio hitzez-hitz:

1. Araua. Aurrekontu egonkortasunaren helburua.

1. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2016ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da defizita zero izatea, finantzaketa ahalmena edota premiaren bitartez neurtuta, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioari jarraituz.

Magnitude hori zehazteko, honakoa hartuko da kontuan:

—Entitatea aurrekontu eta kontabilitate publikoa eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia honakoen arteko diferentziaren bitartez kalkulatu da: Aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreraren eta aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen artekoa. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

—Entitatea enpresen Kontabilitate Plan Orokorra eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia Galera-Irabazien Kontuaren emaitzaren bitartez kalkulatu da. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dea egiaztatu beharko da 2016ko aurrekontuaren onarpen, aldaketa eta kitapenean. Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

2. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2016ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da oreka finantzarioa izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da entitate guztietan, banan-banan hartuta, bai 2016ko gastuen eta sarreren aurreikuspen egoeran, eta baita urteko kontuetan ere.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitateek apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez badute plan ekonomiko- finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

1.3 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2015eko azaroaren 17an, onarturiko Instrukzioaren 3. go. Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ Gastu arauari” buruz hauxe dio hitzez-hitz:

3. Araua. Gastuaren araua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2015aren eta 2016aren artean gastu konputagarriaren bariozioa %1,8 baino handiagoa ez izatea.

Gastu konputagarria zehazteko enplegu ez finantzarioetatik abiatu beharko da, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioaren arabera neurtuta, eta horietatik kenduko dira bai interesak, bai beste herri administrazioetatik datozen sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Enplegu ez finantzarioak zehazteko, berriz, aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuak hartuko dira oinarritzat. Horrez gain, enplegu ez finantzarioetan eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Diru-bilketaren hazkunde iraunkorrak dakartzaten Araudi aldaketak onartzean edota bilketan eragin positiboa izango duten kudeaketa neurriak aplikatzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean handitu ahal izango da 2016an. Era berean, diru-bilketaren murrizketa iraunkorrak dakartzaten araudi-aldaketak onartzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean gutxitu beharko da 2016an.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, baina 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren laugarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, plenoari komunikazioa egin diezaiolke.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da 2016ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean.

1.4 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2015eko azaroaren 17an, onarturiko Instrukzioaren 2. Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ zor publikoaren helburua” ri buruz hauxe dio hitzez-hitz:

2. Araua Zor publikoaren helburua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2016ko abenduaren 31ko zor bizia ez izatea 2015ean likidatutako sarrera arrunten %80 baino handiagoa.

Zor bizia kalkulatzeko kontuan hartuko dira 2015eko abenduaren 31n indarrean ziren eragiketa guztiak, abaletatik eratorritako arriskua barne; eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kenduko zaizkio 2014rako



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

aurreikusitako amortizazioak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

2016ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egiaztatu beharko da erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela.

Zorraren helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2014-2017 epealdia aurreikusiko duena. Plan horretan jasoko den zor murrizketaren bilakaerak bermatu beharko du 2020an zorraren ratioa %70 baino handiagoa ez izatea.

1.5 Udalbatzak 2016ko uztailaren 21eko osoko bilkuran onartu zuen 3/2016 kreditu aldaketen espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean. Espediente horrek gastuen partida berriak aurreikusten ditu, eta baita dauden beste batzuk gutxitzea eta handitzea ere. Taula honetan daude jasota.

Aurrekontu-saila	Azalpena	Egungo kredituak	Aldaketak
1.0000.203.153.40.00	Ibilgailuen renting errentamendua	0,00	110,00
1.0000.211.153.40.00	Pabilolian konponketak	4.900,00	4.000,00
1.0000.212.231.41.00	Larrialdi etxebizitzaren mantentzea	1.500,00	3.500,00
1.0000.212.323.10.00	E. Arrese eraikinaren mantentzea	100,00	400,00
1.0000.215.920.00.00	Prozesu informatikoaren mantentzea	15.000,00	1.235,00
1.0000.221.323.00.01	E. Arrese 13 argindarra.	100,00	225,00
1.0000.221.324.00.01	Hezkuntza argindarra.	100,00	280,00
1.0000.226.231.50.05	Genero berdintasuna. Sentsibilizatze eta formakuntza	12.000,00	4.500,00
1.0000.226.920.00.04	Gastu juridiko eta notarialak	12.000,00	15.000,00
1.0000.230.170.00.00	Dieta, joan-etorriak ingurumena.	200,00	550,00



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

00			
1.0000.227.133.10.02	TAO zerbitzua	22.000,00	37.425,00
1.0000.227.920.00.07	Kontuen auditoretza kontratua.	0,00	12.100,00
1.0000.422.419.00.01	Eskualdeko hiltegiari ekarpena.	0,00	2.834,00
1.0000.601.171.00.00	Haur parkeen berritzea	15.000,00	6.500,00
1.0000.601.323.10.00	Haur parkearen hesia	5.000,00	500,00
1.0000.623.920.00.01	Udal wifnet.	0,00	3.062,00
	GUZTIRA.....		92.221,00

1.5.1 Espediente horrek betetzen du “zor publikoaren helburua”, izan ere zor bizia, 2015eko abenduaren 31n %40,32 da, 2015ean likidaturiko diru-sarreraren gainean, eta horrela zehazten du Diputatuen Kontseiluaren Instrukzioaren 2 Arauak, aurreko atalean jasotakoak, hau da, zor biziak ezin duela izan 2015ean likidaturiko diru-sarreraren %80 baino handiagoa izan.

1.5.2.1 Aurrekontu Orokorraren 3/2016 kreditu aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean , ehun et berrogeita hamaika mila hirurehun eta hirurogeita hamahiru koma berrogeita zortzi euroko **(-151.373,48€)** defizita du , SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, eta 2016rako helburua da defizit zero izatea.

Beraz , aurrekontu orokorraren 3/2016 kreditu aldaketaren espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, EZ du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema europarraren arabera, ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

GASTUAK		Aitorturiko betebeharrak	DIRU-SARRERAK		
I KAP	langileak	1.539.570,00	I KAP	Z. zuzenak	1.083.710,00
II	Ohiko ondasun eta zerbitzuak	2.101.248,42	II	Z. zeharkakoak	39.000,00
III	Interesak	7.500,00	III	Tasa eta bestelako diru-sarrerak	730.609,00
IV	Ohiko	618.334,4	IV	Ohiko transferentziak	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	transferentziak	0			2.837.181,0 0
V			V	Ondare diru-sarrerak	9.000,00
VI	Inbertsioak	591.720,6 6	VI	Inbertsio.-erreal. besterentze	
VII	Kapital transferentziak	20.000,00	VII	Kapital transferentziak	27.500,00
	GUZTIRA	4.878.373, 48		GUZTIRA	4.727.000,0 0

Kalkulu hori egin da 1-7 kap.etako diru-sarreraren aldeekin, eta 1-7 kap.etako gastuekin, termino kontsolidatuetan.

1.5.2.2. Bestalde, "Gastu araua" ez betetzea gauzatu da aipaturiko kreditu aldaketan bariazio bat izan delako gastu konputagarriena, zehazki 2015eko aurrekontuaren kitapenaren gastu likidatuak eta 2016ko gastu likidatuak. Sartuta daude aurreikusitako gastuak kreditu aldaketaren espedientean, %12,36; FAK ezarritako helburua 2016rako da gastu konputagarriaren bariazioa %1,8 baino txikiagoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko kontuan zian dira goian aipaturiko erakundearen datu kontsolidatuak eta taula honen arabera:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	Gastu ez finantzarioa 2015 (Kap 1 - 7)	4.302.503,84
a2	Doiketak SEC	0,00
a3	Interesak 2015	8.375,63
a4	Erasandako finantziadun gastuak 2015	158.425,48
a5	Doiketa: transferentzi bidezko ordainketa	110.595,32
a=a1+a2-a3-a4	Gastu konputagarria 2015	4.025.107,41
b1	Gastu ez finantzarioa 2016 (cap 1 a 7)	4.579.910,00
b2	Doiketak SEC	0,00
b3	Interesak 2015	7.500,00
b4	Erasandako finantziadun gastuak 2016	187.200,00
b5	Doiketa: transferentzi bidezko ordainketa	161.066,31
b6	1/2016 kreditu aldaketa esped.	159.263,48



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

b7	2/2016 kreditu aldaketa esped	46.979,00
b8	3/2016 kreditu aldaketa esped	92.221,00
b=b1+b2-b3-b4-b5+b6+b7+b8	Gastu konputagarria 3/2016 kreditu aldaketarekin	4.522.607,17
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%)	12,36 %

Kontu-hartzailearen txosten honen, gastu araua aztertu eta ebaluatzeko orduan, GFAko Ogasun eta Finantza departamentuko Instrukzioaren 3 Arauari jarraiki, udaleko datu kontsolidatuak izan ditu kontuan, zehazki hauek:

-2015ean aitorturiko obligazioak 1-7 gastuen kap: 4.302.503,84€

-Aitorturiko interesak 2015ean: 8.375,63€

-Erasandako finantzaziodun gastuak, diru-sarreraren 4-7 kap ken zerga kontzertatu eta Estatuaren zergen diru-sarreraren parte-hartzeari dagozkion diru-sarrerak: 158.425,48€

2.-ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2015eko azaroaren 17koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

3. UDALAREN IRAUNKORTASUN FINANTZARIOAREN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA.

3.1 2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015ean likidatutako sarrera arrunten % **40,32** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2015ean likidatutako diru-sarrera arruntak	4.468.106,85€
Zor bizia 2015.12.31n	1.947.932,90€
Abalak	0,00 €
Formalizatu baina xedatu gabeko eragiketak	0,00 €
2014an aurreikusitako amortizazioak	146.490,00€
▪ $\frac{1.947.932,90 - 146.490,00}{4.468.106,85} \%$	= %40,32
• 4.468.106,85	

Foru Aldundiak 2016rako ezarritako helburua magnitude hori %80 baino txikiagoa izatea denez, udalak tarte handia du bere egonkortasun finantzarioa betetzeko.

3.2 2015eko eta 2016ko Aurrekontu Orokorren kitapenak diruzaintzako geldikin eta aurrezte garbi positiboak ditu.

3.3 2016ko Aurrekontu orokorrek zero defizita du eta bere zor publikoek betetzen ditu otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak ezarritako helburuak.

3.4 3/2016 kreditu aldaketaren espedientearen gastuek, 2016ko aurrekontu orokorreko kreditu gehigarriak modalitatean, ez dakarte berez, udalak ematen dituen zerbitzuen kostua handiagotzea, ez beste zerbitzu berririk. Gainerako gastuek izaera puntuala eta koiunturazkoa dute. Horrenbestez, udal zerbitzuen egungo kostua mantentzen bada eta udalaren ohiko diru-sarrerak mantentzen badira, epe ertain eta laburrean, udalak ez du beharko neurri berezi edo apartekorik bere egonkortasun finantzarioa bermatzeko.

Horregatik, espedientea aztertu eta ebaluatu ondoren, kontu-hartzaile honek hau

ONDORIOZTATZEN DU

Aurrekontu Orokorren 3/2016 kreditu aldaketa espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean, betetzen du zor publikoaren edo finantzen iraunkortasun helburua, nahiz eta koiunturalki ez duen betetzen aurrekontu egonkortasun helburua eta gastu araua.

Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA:

4/2016 KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEA

4/2016 kreditu aldaketaren espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien bidez eta udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da. Horren arabera, espedienteak dagokion araudia betetzen du, zehazki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27 artikuluan ezarritako eskakizun eta izapideak.

Kontuan izanda Gipuzkoako Tokiko Erakundeetako Zergei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31 eta 34.3 art. eta Aurrekontua gauzatzeko Udal Araudiaren 4 atalaren 5.b art.

Ikusi dira Ogasun eta Kontuen batzordearen 2016ko irailaren 28koa aldeko txostena eta onarpen proposamena.

2016ko irailaren 28ko Kontuen eta Ogasunaren Batzorde Bereziaren irizpena kontutan izanik, Udaltzat, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea 4/2016 Kreditu aldaketa espedientea, kreditu gehigarrien bidez, eta udal honi dagokion aurrekontuari dagokiona. Ondoren zehazten da atalka:

KREDITU GEHIKUNTZA

ATALA	IZENDAPENA	GEHIKUNTZA
2.-	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	35.975,00
4.-	Transferentzi arruntak	11.000,00
6.-	Benetako inbertsioak	16.500,00
GUZTIRA GEHIKUNTZAK.....		63.475,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

A) AUREKONTU KREDITUEN BAJAK

ATALA	IZENDAPENA	MURRIZKETA
2.-	Gastu arruntak	5.000,00
6.-	Benetako inbertsioak	17.907,00
GUZTIRA MURRIZKETAK.....		22.907,00 €

B) DIRUZAINITZA GERAKINA

ATALAK	IZENDAPENA	Zenbatekoa
8.-	Diruzaintza gerakina	40.568,00
GUZTIRA		40.568,00 €

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu orokorrari ematen zaion izapidetzea emango zaio.

BOSGARRENA:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA:AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA EZ BETETZEA 4/2016 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA, 2016KO AURREKONTU OROKORREKO KREDITU GEHIGARRIAK MODALITATEA.

Kontuhartzaileak honako txostena aurkezten dio Udalbatzari:

Kontuhartzailetza honek, 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5 art.an xedaturikoa betez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza departamentuaren Instrukzioaren 1.go eta 3. Arauari (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) jarraiki, txosten hau egiten du Udalbatza jakinaren gainean gelditzeko.

1.- AURREKARIAK

1.2 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5 art.an neurri zehatz batzuk ezartzen ditu Gipuzkoako toki entitateetako aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna bermatzeko .

5. artikulua.– Zuzentze neurriak.

1.– Ez bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, urtebetean helburu horiek edo gastu araua bete ahal izateko.

2.– Dena den, zor helburua betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokitu zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020 urteko denbora muga.

3.– Bestetik, aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzailetzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

1.2 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2015eko azaroaren 17an, onarturiko Instrukzioaren 1.go . Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ aurrekontu egonkortasunari” buruz hauxe dio hitzez-hitz:

1. Araua. Aurrekontu egonkortasunaren helburua.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2016ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da defizita zero izatea, finantzaketa ahalmena edota premiaren bitartez neurtuta, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioari jarraituz.

Magnitude hori zehazteko, honakoa hartuko da kontuan:

—Entitatea aurrekontu eta kontabilitate publikoa eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia honakoen arteko diferentziaren bitartez kalkulatu da: Aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreraren eta aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen artekoa. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

—Entitatea enpresen Kontabilitate Plan Orokorra eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia Galera-Irabazien Kontuaren emaitzaren bitartez kalkulatu da. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dea egiaztatu beharko da 2016ko aurrekontuaren onarpen, aldaketa eta kitapenean. Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

2. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2016ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da oreka finantzarioa izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da entitate guztietan, banan-banan hartuta, bai 2016ko gastuen eta sarreraren aurreikuspen egoeran, eta baita urteko kontuetan ere.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitateek apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez badute plan ekonomiko- finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.3 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2015eko azaroaren 17an, onarturiko Instrukzioaren 3.go . Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ Gastu aruari” buruz hauxe dio hitzez-hitz:

3. Araua. Gastuaren araua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2015aren eta 2016aren artean gastu konputagarriaren bariazioa %1,8 baino handiagoa ez izatea.

Gastu konputagarria zehazteko enplegu ez finantzarioetatik abiatu beharko da, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioaren arabera neurtuta, eta horietatik kenduko dira bai interesak, bai beste herri administrazioetatik datozen sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia.

Enplegu ez finantzarioak zehazteko, berriz, aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuak hartuko dira oinarritzat. Horrez gain, enplegu ez finantzarioetan eragin adierazgarririk duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Diru-bilketaren hazkunde iraunkorak dakartzaten Araudi aldaketak onartzean edota bilketan eragin positiboa izango duten kudeaketa neurriak aplikatzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean handitu ahal izango da 2016an. Era berean, diru-bilketaren murrizketa iraunkorak dakartzaten araudi-aldaketak onartzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean gutxitu beharko da 2016an.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, baina 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren laugarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, plenoari komunikazioa egin diezaike.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da 2016ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.4 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2015eko azaroaren 17an, onarturiko Instrukzioaren 2. Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “zor publikoaren helburua” ri buruz hauxe dio hitzez-hitz:

2. Araua Zor publikoaren helburua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2016ko abenduaren 31ko zor bizia ez izatea 2015ean likidatutako sarrera arrunten %80 baino handiagoa.

Zor bizia kalkulatzeko kontuan hartuko dira 2015eko abenduaren 31n indarrean ziren eragiketa guztiak, abaletatik eratorritako arriskua barne; eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kenduko zaizkio 2014rako aurreikusitako amortizazioak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

2016ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egiaztatu beharko da erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela.

Zorraren helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2014-2017 epealdia aurreikusiko duena. Plan horretan jasoko den zor murrizketaren bilakaerak bermatu beharko du 2020an zorraren ratioa %70 baino handiagoa ez izatea.

1.5 Udalbatzak 2016ko irailaren 29ko osoko bilkuran onartu zuen 4/2016 kreditu aldaketen espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean. Espediente horrek gastuen partida berriak aurreikusten ditu, eta baita dauden beste batzuk gutxitzea eta handitzea ere. Taula honetan daude jasota.

AURREKONTU KREIDTUEN GEHIKUNTZA

Aurrekontu-saila	Azalpena	Egungo kredituak	Aldaketak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.0000.202.133.00.00	Bideen seinaleztatze eta segurtasuna	3.500,00	500,00
1.0000.210.450.00.00	Azpiegitura gastuak	56.000,00	6.000,00
1.0000.212.231.40.00	Euskal Herria 18-2 komunitatearen mantentzea	10.000,00	3.000,00
1.0000.212.333.10.00	Ibai Gain lokalaren mantentzea	3.000,00	4.000,00
1.0000.220.330.00.01	Kultur etxeko bulego materiala	1.000,00	2.500,00
1.0000.221.231.60.02	Kale hezitzaileen lokaleko ur gastuak	100,00	300,00
1.0000.221.323.10.01	E. Arrese 13 argindarra	100,00	1.500,00
1.0000.221.324.00.01	Argindarra hezkuntza	100,00	5.000,00
1.0000.226.338.00.06	Festa eta jaiak	70.000,00	3.000,00
1.0000.226.338.30.06	Azkue auzoko jaiak	0,00	2.000,00
1.0000.227.153.40.01	Brigada pabilioiaren garbiketa kontratua	1.600,00	50,00
1.0000.227.231.60.01	Kale hezitzaileen lokaleko garbiketa	2.000,00	100,00
1.0000.227.231.60.99	Auzoko egitasmoa	6.000,00	2.950,00
1.0000.227.333.00.01	Kultur etxeko garbiketa kontratua	13.600,00	650,00
1.0000.227.337.20.01	Azkue 9 garbiketa kontratua	4.500,00	725,00
1.0000.227.337.21.01	Ibai-gain 6 lokalaren garbiketa kontratua	2.300,00	550,00
1.0000.227.342.00.01	Kiroldegiko garbiketa kontratua	38.500,00	3.000,00
1.0000.227.450.00.01	Igogailuaren garbiketa kontratua	600,00	150,00
1.0000.422.922.00.00	Ekarpena erakunde publikoei	8.000,00	6.000,00
1.0000.434.431.00.01	Bertako merkataritzari transferentziak	0,00	5.000,00
1.0000.601.153.20.04	Izaskun bidearen konponketak	27.500,00	8.500,00



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.0000.601.171.00.01	Haur parkeak berritzea	15.000,00	5.000,00
1.0000.622.333.00.00	Kultur etxea berritzea	3.000,00	3.000,00
	GUZTIRA.....		63.475,00

AURREKONTU KREDITUEN BAJAK

Aurrekontu-saila	Azalpena	Egungo kredituak	Gutxitzea
1.0000.226.431.00.06	Merkataritza jarduerak	12.000,00	5.000,00
1.0000.601.153.20.00	Izaskungo hiritartze lanak	14.000,00	5.960,00
1.0000.601.153.20.05	Edadetuen parkeko zorua	11.500,00	3.835,00
1.0000.601.153.30.01	E. Arrese parkearen estalkia	8.112,00	8.112,00
	GUZTIRA.....		22.907,00

1.5.1 Espediente horrek betetzen du “zor publikoaren helburua”, izan ere zor bizia, 2015eko abenduaren 31n %40,32 da, 2015ean likidaturiko diru-sarreraren gainean, eta horrela zehazten du Diputatuen Kontseiluaren Instrukzioaren 2 Arauak, aurreko atalean jasotakoak, hau da, zor biziak ezin duela izan 2015ean likidaturiko diru-sarreraren %80 baino handiagoa izan.

1.5.2.1 Aurrekontu Orokorraren 4/2016 kreditu aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean , ehun eta laurogeita hamaika mila bederatziehun eta berrogeita bat koma berrogeita zortzi euroko (-191.941,48€) defizita du , SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, eta 2016rako helburua da defizit zero izatea.

Beraz, , aurrekontu orokorraren 4/2016 kreditu aldaketaren espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, EZ du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema europarraren arabera, ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

GASTUAK		Aitorturiko betebeharrak	DIRU-SARRERAK		
I KAP	langileak	1.539.570,	I KAP	Z. zuzenak	1.083.710,0



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

		00			0
II	Ohiko ondasun eta zerbitzuak	2.132.223,42	II	Z. zeharkakoak	39.000,00
III	Interesak	7.500,00	III	Tasa eta bestelako diru-sarrerak	730.609,00
IV	Ohiko transferentziak	629.334,40	IV	Ohiko transferentziak	2.837.181,00
V			V	Ondare diru-sarrerak	9.000,00
VI	Inbertsioak	590.313,66	VI	Inbertsio.-erreal. besterentze	
VII	Kapital transferentziak	20.000,00	VII	Kapital transferentziak	27.500,00
	GUZTIRA	4.918.941,48		GUZTIRA	4.727.000,00

Kalkulu hori egin da 1-7 kap.etako diru-sarreraren aldeekin, eta 1-7 kap.etako gastuekin, termino kontsolidatuetan.

1.5.2.2. Bestalde, "Gastu araua" ez betetzea gauzatu da aipaturiko kreditu aldaketan bariazio bat izan delako gastu konputagarriena, zehazki 2015eko aurrekontuaren kitapenaren gastu likidatuak eta 2016ko gastu likidatuak. Sartuta daude aurreikusitako gastuak kreditu aldaketaren espedientean, **%13,37**; FAK ezarritako helburua 2016rako da gastu konputagarriaren bariazioa %1,8 baino txikiagoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko kontuan zian dira goian aipaturiko erakundearen datu kontsolidatuak eta taula honen arabera:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	Gastu ez finantzarioa 2015 (Kap 1 – 7)	4.302.503,84
a2	Doiketak SEC	0,00
a3	Interesak 2015	8.375,63
a4	Erasandako finantziadun gastuak 2015	158.425,48
a5	Doiketa: transferentzi bidezko ordainketa	110.595,32
a=a1+a2-a3-a4	Gastu konputagarria 2015	4.025.107,41
b1	Gastu ez finantzarioa 2016 (kap 1 a 7)	4.579.910,00
b2	Doiketak SEC	0,00
b3	Interesak 2015	7.500,00
b4	Erasandako finantziadun gastuak 2016	187.200,00
b5	Doiketa: transferentzi bidezko ordainketa	161.066,31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

b6	1/2016 kreditu aldaketa esped.	159.263,48
b7	2/2016 kreditu aldaketa esped	46.979,00
b8	3/2016 kreditu aldaketa esped	92.221,00
b9	4/2016 kreditu aldaketa esped.	40.568,00
b=b1+b2-b3-b4- b5+b6+b7+b8+ b9	Gastu konputagarria 4/2016 kreditu aldaketarekin	4.563.175,17
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%)	% 13,37

Kontu-hartzailearen txosten honen, gastu araua azertu eta ebaluatzeko orduan, GFAko Ogasun eta Finantza departamentuko Instrukzioaren 3 Arauari jarraiki, udaleko datu kontsolidatuak izan ditu kontuan, zehazki hauek:

-2015ean aitorturiko obligazioak 1-7 gastuen kap: 4.302.503,84€

-Aitorturiko interesak 2015ean: 8.375,63€

-Erasandako finantzaziodun gastuak, diru-sarreraren 4-7 kap ken zerga kontzertatu eta Estatuaren zergen diru-sarreraren parte-hartzeari dagozkion diru-sarrerak: 158.425,48€

2.-ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2015eko azaroaren 17koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

4. UDALAREN IRAUNKORTASUN FINANTZARIOAREN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3.1 2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015ean likidatutako sarrera arrunten % **40,32** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2015ean likidatutako diru-sarrera arruntak	4.468.106,85€
Zor bizia 2015.12.31n	1.947.932,90€
Abalak	0,00 €
Formalizatu baina xedatu gabeko eragiketak	0,00 €
2014an aurreikusitako amortizazioak	146.490,00€
▪ $\frac{1.947.932,90 - 146.490,00}{4.468.106,85} \%$	= %40,32

Foru Aldundiak 2016rako ezarritako helburua magnitude hori %80 baino txikiagoa izatea denez, udalak tarte handia du bere egonkortasun finantzarioa betetzeko.

3.2 2015eko eta 2016ko Aurrekontu Orokorren kitapenak diruzaintzako geldikin eta aurrezte garbi positiboak ditu.

3.3 2016ko Aurrekontu orokorrek zero defizita du eta bere zor publikoek betetzen ditu otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak ezarritako helburuak.

3.4 4/2016 kreditu aldaketaren espedientearen gastuek, 2016ko aurrekontu orokorreko kreditu gehigarriak modalitatean, ez dakarte berez, udalak ematen dituen zerbitzuen kostua handiagotzea, ez beste zerbitzu berririk. Gainerako gastuek izaera puntuala eta koiunturazkoa dute. Horrenbestez, udal zerbitzuen egungo kostua mantentzen bada eta udalaren ohiko diru-sarrerak mantentzen badira, epe ertain eta laburrean, udalak ez du beharko neurri berezi edo apartekorik bere egonkortasun finantzarioa bermatzeko.

Horregatik, espedientea aztertu eta ebaluatu ondoren, kontu-hartzaile honek hau

ONDORIOZTATZEN DU



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aurrekontu Orokorraren 4/2016 kreditu aldaketa espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean, betetzen du zor publikoaren edo finantzen iraunkortasun helburua, nahiz eta koiunturalki ez duen betetzen aurrekontu egonkortasun helburua eta gastu araua.

Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.

SEIGARRENA:

IBARRAKO UDAL PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA

2016ko martxoaren 17an udalbatzak onartu zuen Eusko Jaurlaritzari baimena eskatzea Udaltzaingoa sortzeko.

2016ko maiatzaren 26an jaso zen Eusko Jaurlaritzaren erantzuna. Eusko Jaurlaritzak 2016ko apirilaren 26an egindako Gobernu Kontseiluan onartu zuen Ibarra Udaltzaingoaren sorrera.

Sortuko diren plazak hauek dira:

. Lehen agente bat.

. Hiru agente.

Kenduko den plaza:

. Aguazila

Udal plantillan aldi berean ezin dira izan aguazila plaza eta udaltzaingoa, beraz aguazila plaza kendu egingo da udal plantilla organikoatik, gaur egun aguazila plaza betetzen duen funtzionarioak barne promozio baten ostean, agente plaza bat betetakoan.

Kontuan izanda Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, 22.2.i) eta 90.1 artikuluetan dioena eta baita Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 126 artikuluan eta jarraitukoetan dioena.

Kontuan izanda udalaren plantilla bere lanpostuak antolatzea, arautzea eta sailkatzea dela eta Testu Bateginak 126 artikuluan dioena betez lanpostu guztiak jaso beharko ditu, funtzionario, lan-kontratuko langile eta behin-behinekoenak, behar bezala sailkatuta.

Kontuan izanda Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege dekretuak onartua



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016ko abuztuak 22ko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, 6 aldeko botorekin (6 BILDU) eta 3 abstentziorekin (3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Hasierako onarpena ematea udal plantilla organikoaren aldaketari, ondorengo plazak sortzeko eta kentzeko:

Izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Egoera	Oharrak
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA Zerbitzu berezien azpieskala				
Mota Udaltzaingoa				
Lehen Agentea	1	C2	Hutsik	Dedikazio berezia
Agentea	3	C2	Hutsik	
Mota Eginkizun anitzak				
Aguazila	1	Lanbide taldea	Jabetza	Kentzekoa

BIGARRENA: Plantilla organikoaren aldaketa jendaurreko tramitean jartzea, hamabost eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Aipatu epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

ZAZPIGARRENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IBARRAKO UDAL LANPOSTU ZERRENDA ALDATZEA

Kontuan izanda lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu behar dituztela, eta Udal plantilla organikoan sortu diren Lehen Agente eta Agente plazak betetzeko ezaugarriak eta baldintzak bertan azaldu behar direla.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Oinarrien legearen 90 artikulua ezartzen duela udalek beren erakundearen lanpostuen zerrenda osatuko dutela, funtzio publikoari buruzko oinarriko legedian aurreikusitakoari jarraiki.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Testu Bateginaren 126.4 artikulua ezartzen duela lanpostu zerrendak, funtzio publikoaren oinarriko legedian aurreikusitako edukia dutela, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 90.2 artikulua arabera egingo direla.

Kontuan izanda Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege dekretuak onartua.

Kontuan izanik Euskal Administrazioaren funtzio publikoaren arloan aplikatzekoa den Funtzio Publikoaren Legeak, bere 13. artikulutik 18.era, honakoa ezartzen duela:

* Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak

* Lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-itunpeko langile finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz.

* Lanpostu-zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko:

- izena.
- Atxikita dagoeneko Saila
- dedikazio-erregimena
- hori betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean derrigorrez hizkuntz eskakizuna eta horren derrigortasun-data
- bakoitza zein Talde, Kidego edo Eskala edo lan-kategoriatan sartuta dagoen.
-

Funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan, honako hauek ere adieraziko dira:

- Lanpostuak betetzeko sistema.
- Berariazko osagarria



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

*lanpostuen zerrendak, eta horietan gerta litezkeen aldaketak, Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratuko dira.

*Aurrekontuetan oharmandakoei egokituko zaizkie lanpostu zerrendak, eta ez dute jasoko dagokion ekitaldirako aurrekontu zerrendetan oharmandako kredituek erantzun ezineko diru hornidura duen lanposturik.

2016ko abuztuak 22ko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, 6 aldeko botorekin (6 BILDU) eta 3 abstentziorekin (3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU :

LEHENA: Hasierako onarpena ematea udal lanpostuen zerrendaren aldaketari, ondorengo lanpostuak sortzeko eta kentzeko:

SORTZEKO

- Lehen Agentea

- * Lanpostu kopurua:1
- * Lanpostua betetzeko era: Izendapen librea, beste toki-administrazioei irekita
- * Maila osagarria: 19
- *Berariazko osagarria:900 puntu
- *Dedikazio bereziko berariazko osagarria: %20
- * Lan-jarduna: %100
- * Mendekotasuna: Udaltzaingoa
- * Eskala: Administrazio Berezia
- * Subescala: Zerbitzu Bereziak
- * Taldea: C
- *Azpitaldea: C2
- * Hizkuntza eskakizuna: Erabakitzeke
- * Derrigortasun-data:
- * Eskatutako titulazioa: OHO, LH-1, Eskola Graduatua edo baliokidea
- * Beste baldintza batzuk: B motako gida baimena.

- Agentea (txandak)

- * Lanpostu kopurua: 2
- * Lanpostua betetzeko era: Lehiaketa
- * Maila osagarria: 17
- *Berariazko osagarria:775 puntu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- * Lan-jarduna: %100
- * Mendekotasuna: Udaltzaingoa
- * Eskala: Administrazio Berezia
- * Subescala: Zerbitzu Bereziak
- * Taldea: C
- * Azpitaldea: C2
- * Hizkuntza eskakizuna: Erabakitzeke
- * Derrigortasun-data:
- * Eskatutako titulazioa: OHO, LH-1, Eskola Graduatua edo baliokidea
- * Beste baldintza batzuk: B motako gida baimena.

- Agentea (goizez)

- * Lanpostu kopurua: 1
- * Lanpostua betetzeko era: Lehiaketa
- * Maila osagarria: 17
- * Berariazko osagarria: 675 puntu
- * Lan-jarduna: %100
- * Mendekotasuna: Udaltzaingoa
- * Eskala: Administrazio Berezia
- * Subescala: Zerbitzu Bereziak
- * Taldea: C
- * Azpitaldea: C2
- * Hizkuntza eskakizuna: Erabakitzeke
- * Derrigortasun-data:
- * Eskatutako titulazioa: OHO, LH-1, Eskola Graduatua edo baliokidea
- * Beste baldintza batzuk: B motako gida baimena.

KENTZEKO:

Aguazila:

- * Lanpostu kopurua: 1
- * Lanpostua betetzeko era: Lehiaketa
- * Maila osagarria: 16
- * Berariazko osagarria: 650 puntu
- * Lan-jarduna: %100
- * Mendekotasuna: Idazkaritza
- * Eskala: Administrazio Berezia
- * Azpieskala: Zerbitzu Bereziak
- * Taldea: Lanbide Elkarketa
- * Hizkuntza eskakizuna: 2
- * Derrigortasun-data: 30.6.90
- * Eskatutako titulazioa: Eskola Ziurtagiria



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Lanpostuen zerrendaren aldaketa jendaurreko tramitean jartzea (Funtzio Publikoko Legea 6/1989ak bere 16. artikuluan xedatzen duenari jarraiki), hamabost eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratzen den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita. Aipatu epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

ZORTZIGARRENA:

IBARRAKO UDALEKO HAINBAT LANPOSTUEN FUNTZIO KATALOGOA ONARTZEA

Udaltzaingoan sortu diren lanpostuen funtzioak zehazten dira.

2016ko abuztuak 22ko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, 6 aldeko botorekin (6 BILDU) eta 3 abstentziorekin (3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Onartzea Agente Lehenaren funtzioak. I Eranskinan jaso.

BIGARRENA: Onartzea Agentearen funtzioak. II Eranskinan jaso.

HIRUGARRENA: Onartzea Ingurumen Teknikariaren funtzioak. III Eranskinan jaso.

I ERANSKINA:

AGENTE LEHENAREN FUNTZIOAK

1. UDALEKO AGINTARIAK ETA ONDASUNAK BABESTEIA:

- a. Beharrezkoa denean udaleko agintariak babestea.
- b. Udalaren eraikinak eta instalazioak eta udalerraren azpiegitura zaintzea.
- c. Ezarritako prozedurari jarraituz, bide publikoetan eta udalerraren ondarea osatzen duten leku eta ondasun guztietan (bide-seinaleak, espaloiak, kutxatilak, kale-argiak...) gertatutako irregulartasunen berri ematea. Egokia bada, arduraduna jakinaren gainean jartzea, irregulartasuna bideratzeko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. HIRITARREN SEGURTASUNA ETA BABES ZIBILA:

- a. Hiritarren segurtasuna, eskubide eta askatasun publikoak, eta pertsonen eta ondasunen babesa bermatzea udalerrian.
- b. Biztanleriaren arreta zerbitzuak barne hartzen dituen lan guztiak egitea: Informazioa ematea, kontsultei erantzutea, kexak eta salaketak jasotzea.
- c. Biztanleei era askotako egoera zailetan edo arazoetan laguntzea, baita udalaren eskumenetik kanpo egonagatik tradizioz egiten direnetan ere: Gatazka pribatuak adiskidetasunez konpontzen.
- d. Udalerrian zainketa eta patruila-lanak egitea eta bitarte horretan gertatutako gorabeherak konpontzea.
- e. Biztanleei istripuetan, hondamendietan eta zorigaitz publikoetan laguntzea, babes-lanak legetan aurreikusitako moduan gauzatuz, asistentzia publikorako eta babes zibilerako erakunde eta organismoekin elkarlanean
- f. Erantzun, atestatua egin, eta beharrezkoa bada tratu txarrak jasan dituen emakumea lekuz aldatu ezarritako harrera pisuetara, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako sailak ezarritako neurriak jarraituz.
- g.

3. MUGIKORTASUNA ETA BIDE-SEGURTASUNA:

- a. Trafikoa zaintzea eta ordenatzea, zirkulazioa eta ibilgailuak non uzten diren kontrolatuz Udal ordenantzaren arabera.
- b. Trafiko araua-hausteak zaindu eta salatzea, eta trafiko arazoak ekiditeko beharrezko kudeaketak egitea.
- c. Trafiko isunen izapidegile lanak egitea.
- d. Trafiko araua-hausteak zaindu eta salatzea, eta trafiko arazoak ekiditeko beharrezko kudeaketak egitea.
- e. TAOko isunen izapidegile lanak egitea, bai eta egindako alegazioei erantzun ere.
- f. TAO makinaren garbiketaz arduratzea.
- g. Obrak, ofizialki antolatutako ekitaldiak edota ikuskizun publikoak (jaiak, kultura eta kirol-jarduerak) direla-eta egin beharreko trafiko-mozketak antolatu eta kontrolatzea.
- h. Istripu eta ezbeharretan kontu hartzea (zaurituei laguntzea, zirkulazioa berriro martxan jartzea, atestatuak ongi egitea, trafiko-istripuei buruzko ikerketak eta txostenak egitea).
- i. Ikastetxeei zuzendutako bide heziketari buruzko programen diseinuan, prestakuntzan eta irakaskuntzan laguntzea.

4. POLIZIA ADMINISTRATIBO ETA JUDIZIALA:

- a. Udal-ordenantzak, erregelamenduak eta hitzarmenak betearaztea (azoka eta salmenta ibiltaria, tabernen ixteko ordua eta zarata, hondakin kontrolatu gabea,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- animaliei buruzko araudia, lizentzien kontrola). Egokia bada, beroriek betetzen direla kontrolatu eta salatu.
- b. Ikuskapen eta salaketa-jardueren bidez, hirigintza-diziplina eta udalerriko eraikinen, obren eta instalazioen segurtasun eta osasungarritasun-baldintzak betearaztea, eta kasuan kasuko arduraduna jakinaren gainean jartzea.
 - c. Ikerketa-lanak egitea, beste instantzia batzuetan eskatutakoari jarraituz edo poliziak egindako salaketek eta ekintzek eraginda.
 - d. Hauteskunde garaian hauteskunde-mahaietako kideei jakinarazpenak helarazteaz arduratzea.
 - e. Hauteskunde egunean udal idazkariari laguntzea (hauteskunde-mahaiak dauden lokalak irekitzea, hala eskatuz gero hauteskunde-mahaiak osatzeko garaian aurkeztu ez den hautatutako kidea bere etxera bila joatea...). Hauteskunde prozesuetan herritarrek hauteslekuetara sartzeko askatasuna bermatzea, eta bozketen garapen arrunta eragotzi edo aztoratu ditzaketen gertakariak saihestea.
 - f. Bandoak idazteaz eta udalak herritarrei jakinarazi nahi dizkien ohar eta bandoak argitaratzeaz arduratzea.
 - g.

5. BESTE EGINKIZUN BATZUK:

- a. Biztanleriaren arreta zerbitzuak barne hartzen dituen lan guztiak egitea: Informazioa ematea, kontsultei erantzutea, kexak eta salaketak jasotzea.
- b. Bere jarduerarekin lotutako espedienteak eta administrazio-kontuak egiten, bideratzen eta kudeatzen parte hartzea, kasu bakoitzean zehaztutako ildoan, prozeduren eta ereduaren arabera: Eguneroko parteak, kexak, salaketak, istripuak...
- c. Zerbitzuari logistika- eta administrazio-laguntza ematea: Dokumentuak fotokopiatzea, korrespondentzia bildu eta bidaltzea, efektiboak irratiz eta telefonoz lokalizatzea, faxa arloko artxiboa eguneratzea eta antolatzea.
- d. Agindutakoan, jakinarazpenak eta horietatik eratorritako kudeaketak bideratzen laguntzea.
- e. Sailaren hobekuntza bultzatzea eta horretarako laguntza ematea: hobekuntza-ekintzak eta aldaketak proposatzea.
- f. Etxe-abereen bilketaz arduratzea, jabea bilatuz edo Animaliak babesteko elkartera lekualdatzea kudeatuz.

6. GUZTIEN ARDURAK

- a. Lanpostuari dagokion eginkizunari buruzko gaietan herritarrei erantzutea, informatzea eta orientabideak proposatzea.
- b. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
- c. Sailaren urteko aurrekontu proposamena egitea ezarritako behar eta helburuen arabera, eta onartutako aurrekontua gauzatzea berorren aldizkako kontrol eta jarraipena eginez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- d. Udaltzaingoaren lana zuzendu, antolatu eta koordinatzea, egungo udalbatzak ezarritako eskumenak egoki betetzen direla bermatuz, lege markoaren barruan.
- e. Lanen eta egindako jarduketan deskripzio- eta ebaluazio-alderdiei buruzko txostenak eta memoriak egitea saila hobetzeko neurriak proposatuz.
- f. Pertsonal gaietan ezartzen diren helburu eta ekintzak sailean betetzen direla arduratzea, bai eta bere menpeko langileen administrazioari dagokion gaien (oporrak, baimenak, egutegia...) jarraipena egitea eta langileen administrazioaz arduratzen den funtzionario arduradunari jakinaraztea. Era berean, oporren eta gainerako ezusteen erregularizazioaz arduratzea.
- g. Sailera egotzitako gainerako langileekin lan-pilaketa, absentzia eta gaixotasun egoeretan laguntzea.
- h. Bere esperientziarengatik edo ezagutzagatik menperatzen dituen lan gaietan bere lankideak aholkatzea eta laguntzea.
- i. Hala eskatzen zaionean, agente politikoekin bilerak egitea eta batzorde informatiboetara joatea, bai eta zerbitzuaren barne hobekuntzarekin laguntzea ikerketak, ideia ekarpenak eta hobekuntza proposamenak eginez.
- j. Beste sail, erakunde edo segurtasun indarrekin koordinazioa mantentzea.
- k. Azaldutakoez gain, bere gaitasunekin eta ahalmenekin bat datozen beste zeregin batzuk egitea. Zeregin horiek helburu batzuk lortzeko edo legeak ezarritakoak izan daitezke.

II ERANSKINA:

AGENTE FUNTZIOAK

1. UDALEKO AGINTARIAK ETA ONDASUNAK BABESTEIA

- a. Beharrezkoa denean udaleko agintariak babestea.
- b. Udalaren eraikinak eta instalazioak eta udalerraren azpiegitura zaintzea.
- c. Ezarritako prozedurari jarraituz, bide publikoetan eta udalerraren ondarea osatzen duten leku eta ondasun guztietan (bide-seinaleak, espaloiak, kutxatilkak, kale-argiak...) gertatutako irregulartasunen berri ematea. Egokia bada, arduraduna jakinaren gainean jartzea, irregulartasuna bideratzeko.

2. HIRITARREN SEGURTASUNA ETA BABES ZIBILA:

- a. Hiritarren segurtasuna, eskubide eta askatasun publikoak, eta pertsonen eta ondasunen babesa bermatzea udalerrian.
- b. Biztanleriaren arreta zerbitzuak barne hartzen dituen lan guztiak egitea: Informazioa ematea, kontsultei erantzutea, kexak eta salaketak jasotzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- c. Biztanleei era askotako egoera zailetan edo arazoetan laguntzea, baita udalaren eskumenetik kanpo egonagatik tradizioz egiten direnetan ere: Gatazka pribatuak adiskidetasunez konpontzen.
- d. Udalerrian zainketa eta patruila-lanak egitea eta bitarte horretan gertatutako gorabeherak konpontzea.
- e. Biztanleei istripuetan, hondamendietan eta zorigaitz publikoetan laguntzea, babes-lanak legeetan aurreikusitako moduan gauzatuz, asistentzia publikorako eta babes zibilerako erakunde eta organismoekin elkarlanean
- f. Erantzun, atestatua egin, eta beharrezkoa bada tratu txarrak jasan dituen emakumea lekuz aldatu ezarritako harrera pisuetara, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako sailak ezarritako neurriak jarraituz.

3. MUGIKORTASUNA ETA BIDE-SEGURTASUNA:

- a. Trafikoa zainzea eta ordenatzea, zirkulazioa eta ibilgailuak non uzten diren kontrolatuz Udal ordenantzaren arabera.
- b. Trafiko araua-hausteak zaindu eta salatzea, eta trafiko arazoak ekiditeko beharrezko kudeaketak egitea.
- c. Trafiko araua-hausteak zaindu eta salatzea, eta trafiko arazoak ekiditeko beharrezko kudeaketak egitea.
- d. Nagusiak horrela eskatzen dionean TAOko makineb garbiketa egitea.
- e. Obrak, ofizialki antolatutako ekitaldiak edota ikuskizun publikoak (jaiak, kultura eta kirol-jarduerak) direla-eta egin beharreko trafiko-mozketak antolatu eta kontrolatzea.
- f. Istripu eta ezbeharretan kontu hartzea (zaurituei laguntzea, zirkulazioa berriro martxan jartzea, atestatuak ongi egitea, trafiko-istripuei buruzko ikerketak eta txostenak egitea).

4. POLIZIA ADMINISTRATIBO ETA JUDIZIALA:

- a. Udal-ordenantzak, erregelamenduak eta hitzarmenak betearaztea (azoka eta salmenta ibiltaria, tabernen ixteko ordua eta zarata, hondakin kontrolatu gabea, animaliei buruzko araudia, lizentzien kontrola). Egokia bada, beroriek betetzen direla kontrolatu eta salatu.
- b. Ikuskapen eta salaketa-jardueren bidez, hirigintza-diziplina eta udalerriko eraikinen, obren eta instalazioen segurtasun eta osasungarritasun-baldintzak betearaztea, eta kasuan kasuko arduraduna jakinaren gainean jartzea.
- c. Ikerketa-lanak egitea, beste instantzia batzuetan eskatutakoari jarraituz edo poliziak egindako salaketek eta ekintzek eraginda.
- d. Hauteskunde garaian hauteskunde-mahaietako kideei jakinarazpenak helarazteaz arduratzea.
- e. Nagusiek horrela eskatutakoan, hauteskunde egunean udal idazkariari laguntzea (hauteskunde-mahaiak dauden lokala irekitzea, hala eskatuz gero, hauteskunde-mahaia osatzeko garaian aurkeztu ez den hautatutako kidea bere etxera bila



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

joatea...). Hauteskunde prozesuetan herritarrak hauteslekuetara sartzeko askatasuna bermatzea, eta bozketen garapen arrunta eragotzi edo aztoratu ditzaketen gertakariak saihestea.

- f. Biztanleei istripuetan, hondamendietan eta zorigaitz publikoetan laguntzea, babes-planak legeetan aurreikusitako moduan gauzatuz, asistentzia publikorako eta babes zibilerako erakunde eta organismoekin elkarlanean.
- g. Espazio publikoak zaintzea eta manifestazioen babesean eta jende andana handiko kontzentrazioetan ordena mantentzen laguntzea, horrela eskatzen zaionean.
- h. Prebentzio izapideak eta delitu-egintzak ekidingo dituzten beharrezko jarduketak egitea.
- i. Agindutakoan, jakinarazpenak eta horietatik eratorritako kudeaketak bideratzen laguntzea.

5. BESTE EGINKIZUN BATZUK:

- a. Biztanleriaren arreta zerbitzuak barne hartzen dituen lan guztiak egitea: Informazioa ematea, kontsultei erantzutea, kexak eta salaketak jasotzea.
- b. Bere jarduerarekin lotutako espedienteak eta administrazio-kontuak egiten, bideratzen eta kudeatzen parte hartzea, kasu bakoitzean zehaztutako ildoan, prozeduren eta ereduaren arabera: Eguneroko parte, kexak, salaketak, istripuak...
- c. Zerbitzuari logistika- eta administrazio-laguntza ematea: Dokumentuak fotokopiatzea, korrespondentzia bildu eta bidaltzea, efektiboak irratiz eta telefonoz lokalizatzea, faxa arloko artxiboa eguneratzea eta antolatzea.
- d. Etxe-abereen bilketaz arduratzea, jabea bilatuz edo Animaliak babesteko elkartera lekualdatzea kudeatuz.

6. GUZTIEN ARDURAK

- a. Lanpostuari dagokion eginkizunari buruzko gaietan herritarrei erantzutea, informatzea eta orientabideak proposatzea.
- b. Eskatutako txosten edo agiriak betetzea, eta behin bere eguneko lana amaitutakoan bere nagusiei ematea.
- c. Sailera egotzitako gainerako langileekin lan-pilaketa, absentzia eta gaixotasun egoeretan laguntzea.
- d. Bere esperientziarengatik edo ezagutzagatik menperatzen dituen lan gaietan bere lankideak aholkatzea eta laguntzea.
- e. Horrela eskatutakoan, agente politikoekin bilerak egitea edo batzorde informatiboetara joatea.
- f. Azaldutakoez gain, bere gaitasunekin eta ahalmenekin bat datozen beste zeregin batzuk egitea. Zeregin horiek helburu batzuk lortzeko edo legeak ezarritakoak izan daitezke.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

III – ERANSKINA

INGURUMEN TEKNIKARIAREN FUNTZIOAK

Txostenak eta administrazio lanak:

- Ingurumenean eragina izan dezaketen proiektuak, jarduerak eta baimen espedienteak
- Ingurumen eta Nekazaritza alorreko diru laguntza publikoen espedienteak
- Betelanean eta landa lurreko beste lur mugimenduen espedienteak
- Lurzoru ez urbanizagarrian egiten diren hirigintza baimenen inguruko txostenak landa lurreko loturari buruz.
- Landa lurrean eragina izan dezaketen espedienteak
- Hiri lurreko jarduera lizentziak

Natura ingurunea eta landa garapena:

- Lurzoru ez urbanizagarriaren jarraipena: isurketak, baimenik gabeko eraikuntza eta erabilerak, eta abar.
- Landa lurreko ondasunen babesa eta kontrola
- Herri bideen sarearen babesa, mantenua eta kontrola
- Ibarra Herri Onurako Mendiaren (Karaño) jarraipena GFArekin elkarlanean

Udal zerbitzuen jarraipena eta kontrola:

- Hiri-hondakinen kudeaketa
- Lorazaintza lanen jarraipena
- Argiteri publikoa: energia kontsumoa murrizteko neurriak
- Landa eremuan ematen diren zerbitzuen jarraipena: silo bolako plastikoen bilketa, bideen garbiketa, ...



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Izurriteak sor ditzaketen animalien zein landareen kontrola: liztor beltza, reynoutria japonica, ...
- Arratoien desratizazioa
- Arriskutsu izan daitezkeen txakurrak edukitzeko baimenen tramitea
- Abandonatutako txakurren bideratzea
- Merkataritza sustatzeko neurriak/ekintzak bideratzea

Iraunkortasuna:

- Udal politiketan iraunkortasun irizpideak proposatu eta barneratu, arlo ezberdinei dagokionez: hondakinak, energia, ura, bioaniztasuna, mugikortasuna, ...
- Mugikortasun iraunkorra sustatzeko neurriak: hiri arteko garraio publiko zerbitzua (Izaskun auzora, Apatta poligonora, Berastegira, Gaztelura), bizikleta eta oinezko bideak.
- Tokiko Agenda 21 eta Eskola Agenda 21 proiektuen gidaritza, jarraipena eta ebaluazioa.
- Ingurumen hezkuntzarako ekimenak antolatu: Aste Berdea, Mugikortasun Astea, ...
- Ingurumen arloan beste erakundeekin harremana:

Ihobe. Eusko Jaurlaritzako erakunde publikoa ingurumena kudeatzeko
Tolosaldeko Mankomunitatea
Tolomendi
Tolosaldea Garatzen

BEDERATZI:

IBARBURUBIDE ETA IBARBURUONDO BASERRIEN ARTEAN DAGOEN IZASKUNGO BIDEA ZABALTZEKO HITZARMENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako udalak 2016ko aurrekontuetan partida bat onartu zuen Ibarrako bideen inbentarioan 09. Zenbakiarekin jasotzen den Izaskungo bidea Ibarburuondo eta Ibarburubide baserrien artean dagoen errepide kurba arriskutsua zabaltzeko.

Lan horiek egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza eman dio Ibarrako udalari. Dirulaguntzen ebazpena 2016ko maiatzaren 9an argitaratu zen.

Errepidea zabaltzeko ezinbestekoa da 01 601 katastroko zenbakia duen partzelaren zati bat okupatzea. Lur sail hori Francisca Zalacain Esnaolarena da eta Eskuxarre edo Zalacain Goikoa baserriaren lur-eranskina da.

2016ko ekainaren 10ean Francisca Zalacain Esnaolak aipaturiko lur-sailaren belar-sastrakak garbitzea onartu zion udalari proiektua eta azterketak egin ahal izateko.

Udalak lur sailaren topografia egin eta okupatu beharreko lurak zehaztu ondoren, 2016ko irailaren 15ean Ibarrako udalaren izenean Alkatea Mikel Agirrezabala Ezkurdia eta udal arkitektoa Itziar Agirrezabala eta lurjabearen izenean Francisca Zalacain eta Iñaki Ulazia arkitektoak elkartu ziren bide ondoan dagoen lur zatiaren lagatze edo okupazio baldintzak zehazteko.

Bileran okupaturiko lur azaleraren lagatzearen truke, partzelaren sarrera eta Eskuxarre baserria dagoen lursailaren itxiera baldintzak hobetzea begi onez ikusi zuten bi parteek zuten. Eskuxarre baserri inguruko baldintzen hobetzea:

- Jesus Guridi kalera eramaten doazen jabego pribatuko eskailerari baranda jartzea
- Guridi 6tik aipaturiko eskaileretaraino doan bide-zorraren zorua hobetzea
- Ingurunea hobeto argizatzea
- Bi hesi jartzea erabilera pribatua duen partzela zatia mugatzeko, bata Euskal Herria kalean eta bestea eskaileraren hasieran.

Orain udal arkitektoak, bilera hartan hitz egindakoa jasoz, hirigintza batzordeari hitzarmen idatzia aurkezten dio alkateak eta lur jabeak sinatu aurretik Ibarrako udalbatzaren oneritzia jasotzeko.

2016ko irailaren 23ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU :



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA: Onartzea IV. Eranskinean jasotzen den hitzarmen proposamena, Izaskungo Bidea zabaltzeko terreno zatiaren lagapena onartuz.

BIGARRENA: Lagatzen den terreno zatia eskritura publikoan jasotzea eta ondoren Udal inbentarioan barneratzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Hirigintza sailari eta Francisca Zalacain Esnaola andreari.

IV.ERANSKINA

HITZARMEN PROPOSAMENA: IZASKUNGO BIDEA ZABALTZEKO TERRENO ZATIA LAGATZEA	PROPUESTA CONVENIO CESIÓN PORCIÓN DE TERRENO PARA ENSANCHAMIENTO DE CAMINO A IZASKUN.
Ibarrakoren an	En Ibarra a de de 2.01...
BILDURIK	REUNIDOS
Batetik,	De una parte,
Mikel Agirrezabala Ezkurdia jn. Ibarra udaleko alkate.	D. Mikel Agirrezabala Ezkurdia, en su calidad de Alcalde del Ayuntamiento de Ibarra.
Bestetik,	De otra,
Francisca Zalacain Esnaola, adinez nagusia, NAN 72.424.247-F zk., Eskuzarre baserrikoa, Maestro Guridi 2 zk.an	Dña. Francisca Zalacain Esnaola mayor de edad, con D.N.I. nº 72.424.247-F, con domicilio en Caserio Eskuzarre, sito en Maestro Guridi 2
ADIERAZTEN DUTE	EXPONEN
1. Lehenengoak Ibarra udalaren izenean jarduten du, eta agiri hau sinatzeko	1.- Que el primero, actúa en nombre y representación del Ayuntamiento de Ibarra,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

<p>ahalmena du, horrela erabaki baitzuen udalak 201....ekoosoko bilkuran.</p> <p>2. Bigarrenak bere izenean jarduten du eta Zalacain Goikoa (Eskuxarre) baserriaren eta lur-eranskinen jabea da.</p> <p>3. Elkarri aitortzen diote gaitasuna hitzarmen hau sinatzeko.</p> <p>4.- Udalaren helburu nagusia da Izaskunerako bidea zabaltzea, hain zuzen, Ibarra bideen inbentarioan 09 zk.aren ageri den zatia.</p> <p>5. Ibarra udala eta Eskuxarre edo Zalacain Goikoa baserriaren jabea akordio batera iritsi dira. Akordio horri esker, Izaskuneko bidea zabaltzeko egingo da, eta horretarako, jabeak 40 m² inguruko lur zatia lagako dio udalari. Horren truke, baserriaren inguruko segurtasun eta erabilera baldintzak hobetzeko konpromisoa hartzen du udalak, eta baserria kokatzen den lursaila itxiko du.</p> <p>6. Hauek dira bi aldeek arteko akordioak jasotzen dituzten</p> <p>ESTIPULAZIOAK</p> <p>LEHENA.- Zalacain Goikoa baserriaren eranskinaren jabeak, Francisca Zalacain Esnaolak, udalari lagatzen dio ondoren zehazten den 40 m²-ko azalera Izaskuneko bidea zabaltzeko. Hauek dira terrenoaren</p>	<p>estando facultado para la firma del presente documento por acuerdo plenario adoptado con fecha de de 201...</p> <p>2.- Que la segunda, actúa en su propio nombre y derecho y es titular propietaria de la casería Zalacain Goikoa (Eskuxarre) y sus pertenecidos.</p> <p>3.- Que ambas partes se reconocen capacidad y competencia para suscribir el presente convenio.</p> <p>4.- El objetivo principal del Ayuntamiento es ampliar el ancho del camino a Izaskun señalado con el número 09 en inventario de caminos de Ibarra</p> <p>5.- Que entre el Ayuntamiento de Ibarra y la propiedad de Eskuxarre, o casería Zalacain Goikoa, se ha llegado a un acuerdo que permitirá al ayuntamiento ampliar el ancho del camino a Izaskun para lo cual se deberá efectuar una cesión de 40 m² aproximadamente de terreno particular. A cambio de la cesión efectuada, el Ayuntamiento de Ibarra se compromete a mejorar las condiciones de seguridad y utilización del entorno además de cerrar la parcela donde se ubica el caserío.</p> <p>6.- Los acuerdos alcanzados entre las partes se recogen en las siguientes</p> <p>ESTIPULACIONES</p> <p>PRIMERA.- La propietaria del terreno pertenecido de la casería Zalacain Goikoa con denominado Kamiñogaña, de diez áreas, treinta y un centiáreas y veinte decímetros cuadrados (según escritura de partición de herencia otorgada por D^a Francisca Zalacain Esnaola</p>
--	---



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

<p>ezaugarriak: Kamiñogaña deiturikoa; hamar area, hogeita hamaika zentiarrea eta hogei dezimetro karratu (Francisca Zalacain Esnaolak, 2002ko urtarrilaren 4an Valentina Montero Vilar notarioaren aurrean eginiko oinordetza eskrituraren arabera)</p> <p>BIGARRENA.- Ibarra Udalak konpromisoa hartzen du bide hori zabaltzeko 2016 urtean, ERAIKI SL proiektuaren arabera (hitzarmen honekin batera erantsita doa agiria), bide segurtasuna bermatze aldera.</p> <p>HIRUGARRENA.- Ibarra udalak, doako lagatze horren truke, konpromisoa hartzen du Zalacain Goikoa baserri inguruko hirigintza baldintzak hobetzeko. Hauek dira jarduketak:</p> <p>A) Eskudela jartzea Jesus Guridirako sarbideko eskaileretan.</p> <p>B) Bi burdin sare bidez ixtea : Bat: Euskalerria kaletik etxearen behealdeko terrenoan eta Bi: lehen aipaturiko eskailerak hasten direneko parean.</p> <p>C) Bide-zorren zoladura hobetzea, Jesus Guridi 6 zk.ko aparkalekutik eskaileren pareraino.</p> <p>D) Erabilera publikoko zortasuna dagoen inguruan argiteria publikoaren baldintzak hobetzea.</p> <p>Obra horiek udalaren kontura egingo dira, eta</p>	<p>ante la excelentísima notaría D^a Valentina Montero Vilar con fecha 4 de enero del 2002), D^a Francisca Zalacain Esnaola, cede al ayuntamiento de Ibarra una superficie de 40 m² (de la propiedad antes descrita) destinados a ampliación del ancho del camino a Izaskun.</p> <p>SEGUNDA.- El Ayuntamiento de Ibarra se compromete a ejecutar en el año 2016, según proyecto de ERAIKI S.L (documento adjunto a la firma del presente convenio), la ampliación del camino señalado con el fin de asegurar la seguridad vial.</p> <p>TERCERO.- <i>El Ayuntamiento de Ibarra, en contraprestación a la cesión gratuita, se compromete a mejorar las actuales condiciones de urbanización del entorno de la casería Zalacain Goikoa mediante:</i></p> <p>A) <i>La colocación de: una barandilla en las escaleras que dan acceso a la calle Jesus Guridi</i></p> <p>B) El cierre mediante 2 verjas. La primera en el acceso al terreno antepuerta, desde la calle Euskalerría, en la parte inferior de la casa La segunda a la altura del inicio de escaleras anteriormente señaladas.</p> <p>C) Mejora en el solado de la servidumbre de uso público de paso existente desde el aparcamiento ante Jesus Guridi 6 hasta las escaleras.</p> <p>D) Mejora en las condiciones de iluminación del entorno donde existe servidumbre de uso público.</p>
---	--



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

<p>epea 12 hilabetekoa da gehienez, hitzarmen hau sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.</p> <p>LAUGARRENA: Terreno zatiaren lagatzea eskritura publikoan jasotzea.</p> <p>Udalak amaitzen dituen bidea zabaltzeko obrak, lursailaren jabeak eska diezaioke udalari eskritura publikoan jasotzeko terreno zatiaren lagapena, eta gastu horiek Ibarra udalak ordainduko ditu.</p> <p>Eta beren adostasunaren seinale, bi aldeek agiri hau sinatzen dute goiburuan adierazitako toki eta egunean.</p>	<p>Las obras se realizarán a costa del Ayuntamiento en el plazo máximo de 12 meses a contar desde el día siguiente al de la firma del presente convenio.</p> <p>CUARTO: Elevación a escritura pública de la cesión de porción de terreno.</p> <p>.</p> <p>Finalizadas las obras de ampliación del camino por parte del ayuntamiento, la propietaria titular de la parcela objeto de cesión podrá solicitar al ayuntamiento que se eleve a escritura pública la segregación de la porción de terreno, corriendo a cargo del Ayuntamiento de Ibarra los correspondientes gastos.</p> <p>En prueba de su conformidad ambas partes firman el presente documento el día de la fecha de su encabezamiento.</p>
--	---

HAMARGARRENA:
GALDE-ERREGUAK

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko seiak eta hogeita zortzi direnean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.